



HONDARRIBIKO UDALA

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIK  
2012KO APIRILAREN 20AN EGINDAKO  
EZOHIKO ETA PRESAZKO BILKURAKO  
AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hamabiko apirilaren hogeian Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udaltzatza bildu da Aitor Kerejeta Cid Jaun **Alkate-Udalburuaren** Lehendakaritzapean eta ondoren aipatzen diren **Udalkideak** partaide direla:

**Alkateordeak:**

Juan Maria Altuna Muñoa jna.  
Txomin Sagarzazu Ancisar jna.  
Lupe Olaskoaga Susperregi and.  
Amaya Gezala Ortiz and.  
Maite Pelaez Arregi and.

**eta Zinegotziak:**

Gregorio Berrotaran Etxeberria jna  
Katrín Martínez De la Valle and.  
Ibai Labaien Zapirain jna.  
Juan Ortiz Armendariz  
Catherine J.A. Noblia Richard and.  
Marilena Castillo Gil and.  
Jesus Ignacio Alvarez Yeregui jna.  
Ramon Laborda Larzabal jna.  
Jose Miguel Ochoteco Aguirre jna.  
Ion Elizalde Caballero jna.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa burutu dute zortzietan ni, Maria Luisa Izquierdo Marculeta Andrea, Udaleko Idazkaria lagun nautelarik.

Jon Mikel Garmendia Múgica jaunak ezin etorria adierazi du.

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA  
Y URGENTE CELEBRADA POR EL EXCMO.  
AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE  
HONDARRIBIA EL DIA 20 DE ABRIL DE  
2012**

En la Ciudad de Hondarribia a veinte de abril de dos mil doce se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **Alcalde-Presidente** D. Aitor Kerejeta Cid y con la asistencia de los/as **Tenientes de Alcalde Sres./as.:**

D. Juan María Altuna Muñoa  
D. Txomin Sagarzazu Ancisar  
D<sup>a</sup> Lupe Olaskoaga Susperregi  
D<sup>a</sup>. Amaya Gezala Ortiz  
D<sup>a</sup> Maite Pelaez Arregi

**y de los Concejales y Las Concejales Sres./as.:**

D. Gregorio Berrotaran Etxeberria  
D<sup>a</sup> Katrín Martínez De la Valle  
D. Ibai Labaien Zapirain  
D. Juan Ortiz Armendariz  
D<sup>a</sup> Catherine J.A. Noblia Richard  
D<sup>a</sup> Marilena Castillo Gil  
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui  
D. Ramon Laborda Larzabal  
D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre  
D. Ion Elizalde Caballero.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las ocho horas, asistidos/as de mí, la Secretaria, Dña. María Luisa Izquierdo Marculeta.

No asiste, habiendo justificado su ausencia,  
D. Jon Mikel Garmendia Múgica

**ALKATETZA**

**ALCALDÍA**

Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H

BAZ 010 - 943 11 12 11 943 11 12 50 UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

## **1.-EZOHIKO ETA PRESAZKO DEIALDIAREN BERRESPENA**

Ezohiko eta presazko bilkurarako deiaren berrespena bozkaturik, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

Bilkura hasirik, ondoko Zerrendan agertzen diren Gaiak aztertu dira:

## **2.-HONDARRIBIKO BASERRI BATEKO MAIZTERRAK KALERATZEARI BURUZKO AITORPENA**

Udal honek Hiri honetako Saroizigarronea baserrian sortutako egoeraren berri izan du, alegia maizterrek bertan jarraituko ote duten baserriaren jabeekin duten auzia dela-eta, laster izango baita maizterrek ezarritako errekursoarekiko adierazpen judiziala.

Alkate jaunak hartu du hitza, Guruchet familiarekin bildu ondoren, adierazpen instituzionala egitea edo Udalbatzan gaiaren inguruko akordioa hartzea komenigarria ikusten dela adieraziz. Gai pribatua dela jakinik eta eskubideak esparru pribatu horretan kokatzen direla, egokia ikusi da testua adostea, arrazoi juridikoak zeintzuk diren edo beste motatako arrazoietan sartu gabe. Bere iritziz testuan nahiko garbi azaltzen da Udalaren nahia edo iritzia zein den; gauza bat gai pribatua izatea da eta beste gauza bat baserri bati buruz hitz egitea. Alkatearen ustez, baserriak, berez, badu beste ikuspuntu bat, badu garrantzia, adibidez, herriko kultur ondarean, eta hortik aurrera garrantzi ekonomikoa, lurra nola gorde, nola zaindu eta hori guztia. Testuan aipatzen dena beste alde edo ikuspuntu hori da, ez pribatuen arteko liskarrarena, baserriak duen alde sozial eta

## **1-RATIFICACIÓN DE LA CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA Y URGENTE**

Sometida a votación la ratificación de la convocatoria con carácter urgente de la sesión extraordinaria, es aprobada por unanimidad de los concejales asistentes.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día:

## **2.-DECLARACIÓN EN RELACIÓN AL DESHAUCIO DE LOS INQUILINOS DE UN CASERÍO DE HONDARRIBIA**

Habiendo tenido conocimiento este Ayuntamiento de la situación generada en el Caserío Saroizigarronea de esta Ciudad en relación con la continuidad de la familia arrendataria en el mismo, como consecuencia de la resolución recaída en el litigio que mantiene con la propiedad del caserío, y estando próxima a recaer el pronunciamiento judicial al recurso interpuesto por la familia arrendataria.

Toma la palabra el Sr. Alcalde, manifestando la conveniencia de una declaración institucional o la adopción de un acuerdo plenario. Teniendo en cuenta de que se trata de un tema privado y de que los derechos se circunscriben a dicho ámbito, resulta adecuado consensuar un texto, sin entrar en aspectos jurídicos o razones de otra índole. A su juicio, en el texto queda reflejado el deseo y la opinión de la Corporación; ahora bien, una cosa es que sea un tema privado y otra hablar de un caserío. En opinión del Sr. Alcalde, el caserío tiene otro punto de vista, otra importancia, por ejemplo, en el patrimonio cultural del municipio, y a partir de ahí, en el ámbito económico, en la protección de la tierra, en su conservación y todo lo demás. En el texto a lo que se hace referencia es a ese aspecto, no al enfrentamiento entre las partes privadas, sino al aspecto social y cultural del

kulturalarena baizik.

Bi aldeei akordio batera iristeko deia luzatzen zaie, bientzat bidezkoa eta ona den akordioa adostea, batez ere jabetzari, ahalik eta ahalegin handiena egiteko eskatuz Guruchet familia baserriaren alde eta lurra lantzeko egiten ari den lana kontuan har dezan; izan ere, arazo juridikoak alde batera utzita, Hondarribiko ondarea da.

Testuaren bigarren paragrafoan, udalkideen iritzia aipatzen denean, Alkate jaunak Labaien zinegotzi jaunak honakoa proposatu duela azaldu du: “gure iritzia eman nahi genuke, alegia gure ustez ahalegin berezia egin zitekeela” dioen lekuan, “egin zitekeela” ordeztuz, “egin zitekeela, eta egin litekeela” eranstea. Alkate jaunak egokitzat jo du proposamena, iraganean bakarrik ez, etorkizunera begira ere hitz egin behar dela adieraziz.

Jarraian, Labaien jaunak hartu du hitza arazoaren larritasuna azpimarratuz. Alkate jaunak aipatutako guztiaz gain, herriko familia batentzat drama bat ere suposatzen duela azaldu du; bere taldearen iritziz, familia nahiko modu bidegabean jasaten ari den drama. Zenbait puntu nabarmentzen ditu, horien artean, baserriaren familia beraren hiru belaunaldi bizitu direla; orain bizi den familiak bertan 105 urte inguru bizitzen daramatzala eta zenbait kide hor jaio eta hor hil direla. Horrekin batera, familiaren diru euskarri nagusia baserria bera dela nabarmendu du; teilapeaz gain, euren oinarri ekonomikoa ere galduko luketela, alegia. Urte askoan baserriari zegozkion konponketak ere beraien kontura egin dira, eta ehun urteren buruan konponketa asko izango ziren, baserria eroriko ez bazen, eta hori guztia beraien etxea dela sentitu dutelako. Familiakoek esandakoagatik, aurrekari batzuk daude, izan ere, laurogeigarren hamarkadan ateratako legearekin baserria erosten saiatu ziren, baina jabetzak ez ziren biderik erraztu, eta ezin izan zuten baserriak erosi. Ez beraiek eta ez beste

caserío.

Se insta a las dos partes a que lleguen a un acuerdo que sea justo y conveniente para ambas, y dirigiendo el llamamiento sobre todo a la parte propietaria, para que haga un esfuerzo tomando en cuenta todo lo que está haciendo la familia Guruchet por el caserío y por la labranza de la tierra; al fin y al cabo, dejando al margen los conflictos jurídicos, se trata del patrimonio de Hondarribia.

En el segundo párrafo, en la parte en la que se muestra la opinión de los corporativos, El Sr. Alcalde ha explicado que, el concejal Sr. Labaien, ha propuesto lo siguiente: en la parte en la que dice “quisiéramos manifestar nuestra opinión en el sentido de que entendemos podría haberse hecho un esfuerzo complementario”, en lugar de que aparezca “podría haberse hecho”, que aparezca añadido “podría haberse hecho, y se puede hacer”. El Sr. Alcalde da por buena la propuesta, manifestando que hay que mirar hacia el futuro, no sólo hacia el pasado.

A continuación, toma la palabra el Sr. Labaien incidiendo en la gravedad del asunto. Además de todo lo manifestado por el Sr. Alcalde, explica que se trata del drama que está viviendo una familia del municipio; en opinión de su grupo, un drama que está sufriendo la familia de manera muy injusta. Resalta ciertos aspectos, entre ellos, el hecho de que hayan vivido en el caserío tres generaciones de la misma familia, que la actual familia que vive en el caserío lleva en él cerca de 105 años, y que algunos miembros de la familia han nacido y fallecido en él. Junto con todo ello, destaca que el principal sustento económico de la familia es en sí el caserío; que aparte de su propio techo, está en peligro su sustento económico. Durante muchos años las reparaciones del caserío también se han realizado a su costa, y en el transcurso de cien años han sido muchas para que el caserío se mantuviera en pie, y todo ello porque han sentido el caserío como suyo propio. En palabras de los familiares, existen varios precedentes, entre ellos, el hecho de que en la década de los ochenta con la nueva ley que salió a

zenbaitek, beste lau baserriren adibideak ere bai baitaude, garai batean lurra lantzen zutenak eta gaur egun sasiz inguratuak daudenak. Hondarribiko lehen sektorearentzat, Hondarribiko baserri eta kultur ondarearentzat suposatzen zuen guztiarekin, baserri horiek hustuta geratu ziren eta gaur egun, ondotik pasatzen den edonork argi ikus dezake sasiak jan dituela, Labaien jaunaren hitzetan, horren helburua zein den zehazki jakin gabe.

Jarraian, adierazpenaren inguruan beste bi proposamen eranstea luzatu dio Labaien jaunak Alkate jaunari: bata, une honetan familiaren diru euskarri nagusia baserria bera dela, eta bestea, Udala bi familien arteko bitartekari lana egiteko prest dagoela.

Ondoren, Alvarez jaunak hartu du hitza, Gobernu Taldeak aurkezturiko proposamena interesgarria iruditzen zaiola esanez. Testuari Bildu taldeak aipaturikoa erants dakiokela adierazi du, alegia, Udala bitartekari izatea, baina, nolana ere, denak ados egongo ez balira horrekin, dagoen testua behintzat aurrera ateratzeko desioa azaldu du.

Jarraian Ion Elizalde jaunak hartu du hitza, Labaien jaunak planteatutako puntuekin bat datorrela azalduz, baina berarentzat garrantzitsuena Udalbatzan adierazpen instituzionala aho batez onartzea dela esanez, eta Gobernu aldetik arazorik egongo balitz, berak, behinik behin, ez lukeela trabarik jarriko. Alkate jaunak irakurritakoarekin ados agertu da eta betiko arazoaren aurrean gaudela adierazi du: boteretsu eta ahulenaren arteko borroka. Injustizia baten aurrean gaudela gehitu du, baita Udalaren aldetik kezka eta ardura adierazi behar dela ere, azken finean nekazal lurrak husten ari direlako, nekazal lurrak hiltzen uzten dituztelako, espekulatzeko helburuarekin. Jabe horiekiko mespretxua agertu du eta familiari, aldiz, elkertasun

la luz, se hizo el intento de adquirir el caserío, pero los propietarios no allanaron el camino, y la familia no pudo comprarlo. Ni ellos, ni otros tantos, pues hay otros cuatro ejemplos de ello; otros tantos que se dedicaban a la labranza de la tierra y que hoy en día están cubiertos de matorrales. Con todo lo que suponía para el sector primario y el patrimonio cultural de Hondarribia, esos caseríos quedaron vacíos, y hoy en día, todo aquel que pase junto a ellos, puede observar perfectamente que están llenos de matorrales, sin saber exáctamente el porqué, según el Sr. Labaien.

A continuación, el Sr. Labaien sugiere al Sr. Alcalde añadir otras dos propuestas a la declaración: la primera, el hecho de que en estos momentos el sustento económico de la familia sea el caserío en sí, y en segundo lugar, el ofrecimiento por parte del Ayuntamiento para actuar como intermediario entre las dos familias.

Después, toma la palabra el Sr. Alvarez, diciendo que la propuesta del Equipo de Gobierno le parece interesante. Se muestra de acuerdo con la incorporación al texto de lo propuesto por el grupo Bildu, es decir, con que el Ayuntamiento actúe de intermediario, pero de todas formas, añade que, si se diera el caso de que no todos estuvieran de acuerdo, su deseo sería que por lo menos el texto saliera adelante.

A continuación toma la palabra el Sr. Elizalde, manifestando su conformidad con los puntos expuestos por el Sr. Labaien, y explica que para él lo más importante es que la declaración institucional se acuerde por unanimidad, y que si hubiera algún problema por parte del Gobierno, él, por lo menos, no pondría ningún obstáculo. Asimismo, se muestra de acuerdo con lo leído por el Sr. Alcalde, diciendo que se trata del mismo problema de siempre, de la lucha entre poderosos y débiles. Añade que se trata de una injusticia y que el Ayuntamiento debe mostrar su preocupación y responsabilidad al respecto, porque al fin y al cabo, con la finalidad de especular las tierras se están perdiendo y dejando morir. Ha mostrado su rechazo hacia los

eta babes osoa eskaini dio borrokan jarraitu ahal izateko, kasu honetan justizia egin dadin eta hurrengo epaiketaren emaitzarekin berri on bat jaso dezaten, bai familiak eta baita Udalak ere. Alkateari zuzendu zaio “pribatu” hitza behin baino gehiagotan aipatu duela esanez, eta zenbaitetan istiluak pribatuak izanagatik, Udalak entzungor ezin duela egin esan dio, kasu horietariko bat hizketagai dutena dela ere adieraziz. Udalak bere iritzia eman behar duela erantsi du, eta iritzia soilik ez, ahulenari babesa ere bai.

Ondoren Ochoteco jauna mintzatu da, berarentzat garrantzitsuena testuaren edukia dela azalduz; laguntza eskaintzea ospatzear den epaiketari begira eta udalkideak testuarekin ados egotea. Bere ustez, aipatutako borrokak agerian uzten du gauzak ez direla ongi egin bi aldeetatik, baina batez ere liskarrean dauden bi alde horien alde batetik.

Ondoren, Alkateak hartu du berriz ere hitza, Labaien jaunak aipatu dituen bi puntuei erreferentzia eginez: euskarri ekonomikoaren gaiari eta bitartekari lanak egitearenari. Euskarri ekonomikoaren kontua testuan txerta litekeela esan du, bera ere garrantzitsua delakoan dagoela, baina bitartekari lanak egitearen aipamena testuan sartzea ez du egokitzen jo. Asteaz, adostutako testuaren inguruan bi aldeekin ez ezik, Guruchet familiaren abokatuarekin ere hitz egiteko aukera izan duela adierazi du euren iritzia jakin nahian, eta bere aburuz, Udalaren papera arazoei konponbidea bilatzeko aldeko lana egitea da, ez bi aldeetako bat haserraraztea. Alkatearen ustez, tentuz ibili beharra dago, Udalaren nahia bi aldeak adostasun batera iristea baita. Azken urteetan bi aldeak epaiketa eta judizioetan murgilduta egon diren arren, Udalak ezin du epaile papera hartu, eta are gutxiago azken muturreraino alde batek eta besteak eraman duten plangintza judiziala zein izan den jakin gabe; baina egia da Guruchet familiak baserriaren eta gure herriaren alde lan egin duela eta hori goraiatu beharra dago. Laburtuz, euskarri ekonomikoaren aipamena testuan txertatzea ontzat jo du, baina ez bitartekari lanak egitearena, nahiz eta

propietarios, y hacia la familia su solidaridad y ayuda para seguir con la lucha, esperando que se haga justicia y que la próxima resolución judicial sea motivo de alegría para la familia y la Corporación. Se ha dirigido al Sr. Alcalde indicando que la palabra “privado” se ha repetido en varias ocasiones, y que aunque en ciertos casos los conflictos sean privados, el Ayuntamiento no puede hacer caso omiso, siendo uno de esos casos el que se está debatiendo. Añade que el Ayuntamiento debe pronunciarse, y no sólo dar su opinión, sino también proteger al más débil.

A continuación interviene el Sr. Ochoteco, centrándose en la importancia del contenido del texto; en el apoyo de cara al próximo contencioso y en el consenso de los corporativos sobre el texto. En su opinión, el conflicto deja en evidencia que las cosas no se han llevado a cabo correctamente, pero sobre todo por una de las partes.

Toma la palabra de nuevo el Sr. Alcalde, haciendo referencia a los dos puntos citados por el Sr. Labaien: el correspondiente al sustento económico y al del tema de la mediación. Dice que, lo dicho sobre el sustento económico podría ser añadido al texto, que él también opina que es un matiz importante, pero que no ve conveniente el añadido del tema de la mediación. Explica que durante la semana, ha tenido ocasión de hablar con las dos partes, así como con el abogado de la familia Guruchet con la finalidad de saber su opinión acerca del texto, y según el Sr. Alcalde, la función del Ayuntamiento debe ser la de trabajar para que se resuelva el conflicto existente, no la de enfurecer a una de las partes. A su juicio, hay que actuar con sumo cuidado, pues el deseo del Ayuntamiento es que ambas partes lleguen a un acuerdo. Aunque durante los últimos años las dos partes han estado inmersas en contenciosos y juicios, el Ayuntamiento no puede ejercer de juez, y mucho menos sin tener conocimiento de la planificación judicial que han llevado a cabo los unos y los otros hasta lo extremo; sin embargo, sí que es cierto que la familia Guruchet ha trabajado a favor del caserío y del municipio y eso hay que

egia den azken egunetan udalkideak familiarekin egon direla eta Alkatea bera bai bi aldeekin eta baita familiaren abokatuarekin ere. Dena den, prozesua amaitzeaz dagoela erantsi du eta gauzak ez daudela batere ondo.

Bukatzeko, Labaien jaunak hartu du hitza, euskarri ekonomikoa testuan txertatzea positiboki baloratzen duela esanez, eta bitartekari lana egitearena interesgarritzat jotzen zuten arren, ez dutela arazorik testuan eransten ez bada, udalkide guztien adostasuna lortzea garrantzitsuagoa iruditzen zaionez gero. Gainera, bere iritziz Udalak eman duen irudia ere garrantzitsua da, familiagana hurbiltzearekin gertutasuna azaldu delako, eta arazoari irtenbidea ematen saiatu delako.

Eztabaidan zehar zenbait ñabardura erantsi ondoren aitorpen proposamena bozkaturik, **Udalbatzak**, aho batez, ondorengo AITORPENA onartzea **EBATZIDU**:

“GURUCHET familiako hiru belaunaldi bizi izan dira maizter gisa Saroizigarronea. baserrian. Irungo Lehen Auzialdiko Epaitegiak emandako epaiaren ondorioz, familia hau baserritik kaleratzeko zorian dago.

Jurisdikzio organoaren irizpidearekiko errespetu osoa izanik, eta bere erabakiari men eginez, gure iritzia eman nahi genuke, alegia gure ustez ahalegin berezia egin zitekeela, eta egin litekeela, auzitan dabilzan alderdiak akordio batera iristeko. Arrazoi juridikoak alde batera utzita, kasu honetan badago arazoaren alderdi sozial berezi bat: bertan bizi eta lan egiten duenak burutzen duen lurra eta mendiaren zaintza, Hondarribia osoaren onurarako. Kaleratze

destacarlo. Resumiendo, dice que considera adecuado añadir al texto lo referente al sustento económico, pero no lo correspondiente a hacer de mediador, aunque en los últimos días los corporativos hayan entablado conversaciones con la familia, o incluso el mismo Sr. Alcalde haya estado hablando con las dos partes y el abogado de la familia. De todas formas, añade que el proceso está llegando a su fin y que la situación no es buena.

Finalmente, toma la palabra el Sr. Labaien manifestando que valoran positivamente el añadido del sustento económico, y que, aunque consideraban interesante lo dicho sobre hacer de mediador, no tienen ningún problema si lo propuesto no se añade al texto, que les parece más importante el consenso de todos. Además, en su opinión, la imagen que ha proyectado el Ayuntamiento resulta importante debido a que se ha producido un acercamiento hacia la familia y se ha mostrado la voluntad de dar una solución al problema.

Sometida a votación la propuesta de declaración una vez incorporadas las matizaciones a la misma durante el citado debate, **el Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad **ACUERDA** aprobar la siguiente **DECLARACIÓN**:

“Tres generaciones de la familia GURUCHET han vivido como inquilinas del caserío Saroizigarronea. Como consecuencia de la sentencia dictada por el Juzgado de Primera Instancia de Irun, esta familia está a punto de ser desahuciada.

Con total y absoluto respeto hacia el criterio del órgano jurisdiccional y acatando su decisión, quisiéramos manifestar nuestra opinión en el sentido de que entendemos que podría haberse hecho, y se puede hacer, un esfuerzo complementario para que las partes litigantes hubieran llegado a un acuerdo. Independientemente de las causas jurídicas, en este caso existe un aspecto social del problema, la finalidad del cuidado de la tierra y del monte por

honek nekazaritza ustiapenaren galera eta lurraren eta baserriaren beraren zaintza bertan behera geratzea eragin lezake, baita familiaren beraren diru euskarriaren galera ere. Hori guztia Hondarribiko berezko Ondarea izanik.

Hori dela eta, **ZERA EBATZI DUGU:**

Bi alderdiei akordio batera iristeko deia egitea, bientzat bidezkoa eta ona den akordio batera, batez ere jabetzari ahalik eta ahalegin handiena egitea eskatuz, GURUCHET familia baserriaren alde eta lurra lantzeko egiten ari den lana kontuan har dezan, izan ere, arazo juridikoak alde batera utzita, Hondarribiko Ondarea da”.

**Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du zortziak eta hogeitun minutuan, neuk ziurtatzen dudana akta hau eginez.**

**OE/ Vº Bº  
ALKATEA/El Alcalde**

**Aitor Kerejeta Cid**

el que la cultiva y la habita, con un beneficio objetivo para toda Hondarribia. Este desahucio pudiera acarrear la pérdida de la explotación agraria, cuidado de la tierra y del propio caserío, y, además, la pérdida del sustento económico de la familia. Todo ello patrimonio intrínseco de Hondarribia.

Por todo ello, **ACORDAMOS:**

Instar a las partes a llegar a un acuerdo justo y razonable para ambas, realizando el mayor esfuerzo en este sentido y muy especialmente a la propiedad, a efectos de que valore el esfuerzo y cuidado que está haciendo la familia GURUCHET del caserío y en el mantenimiento de la tierra, que en suma y con independencia de cuestiones jurídicas, es patrimonio cultural de todo Hondarribia”.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las ocho horas y veinte minutos, extendiéndose esta acta que certifico.**